# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**5178**

EBAZPENA, 2008ko irailaren 1ekoa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendariarena, uztailaren 9an Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako Administrazio Kontseiluak onarturiko Kontratatutako Irakasleak eta Ikerlariak, Unibertsitate Pribatuetako Doktore-Tituludun Irakasleak eta Irakasle Lankideak eta Elkartuak Kontratatu Aurreko Txostena Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Protokoloa jakinarazten duena.

KONTRATATUTAKO IRAKASLEAK ETA IKERLARIAK, UNIBERTSITATE PRIBATUETAKO DOKTORE-TITULUDUN IRAKASLEAK ETA IRAKASLE LANKIDEAK ETA ELKARTUAK KONTRATATU AURREKO TXOSTENA EBALUATZEKO ETA EGIAZTATZEKO PROTOKOLOA

1.– Lege Esparrua.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko, 3/2004 Legeak -II. kapituluko 3. eta 4. sailak- jardueraren aurretiazko ebaluazioa eskatzen du irakasle kontratatuak (irakasle osoak, agregatuak eta atxikiak) hartzeko. Irakasle lankideak eta irakasle elkartuak kontratatzeko ere aurretiazko txostena egiteko eskatzen du. Azkenik, doktore-tituludun unibertsitate pribatuetako irakasleen hezkuntza- eta ikerketa-jardunaren kanpoko ebaluazioa ere eskatzen du. Lege horrek Uniquali (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia) esleitzen diio paragrafo horretan aipatutako ebaluazio-funtzioak eta txostenak egitea.

Unibertsitate ez-publikoek Uniqualekin hitzarmenak egin behar dituzte beren irakasleen kanpo-ebaluazioa egiteko, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 113. artikuluak eta abenduaren 21eko Unibertsitateei buruzko 6/2001 Lege Organi-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**5178**

RESOLUCIÓN de 1 de septiembre de 2008, de la Directora de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, por el que se da publicidad al Protocolo de Evaluación y Acreditación del Personal Docente e Investigador Contratado, del Profesorado de las Universidades Privadas en Posesión del Título de Doctor y del Informe Previo a la Contratación de Profesorado Colaborador y Asociado aprobado por el Consejo de Administración de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, el 9 de julio de 2008.

PROTOCOLO DE EVALUACIÓN Y ACREDITACIÓN DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR CONTRATADO, DEL PROFESORADO DE LAS UNIVERSIDADES PRIVADAS EN POSESIÓN DEL TÍTULO DE DOCTOR Y DEL INFORME PREVIO A LA CONTRATACIÓN DE PROFESORADO COLABORADOR Y ASOCIADO

1.– Marco Legal.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, en el Capítulo II, Sección 3.ª y 4.ª exige la previa evaluación de la actividad para la contratación de las figuras de profesorado contratado (Profesorado Pleno, Profesorado Agregado y Profesorado Adjunto) y Personal Investigador contratado por la Universidad. Exige también la emisión del informe previo para la contratación de la figura de Profesorado Colaborador y Profesorado Asociado. Por último, la evaluación externa de la actividad docente e investigadora del Profesorado de las Universidades Privadas en posesión del título de Doctor/a. La citada Ley asigna las funciones de evaluación y emisión de los informes referidos en este párrafo a Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia- Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (Uniqual).

Las Universidades no públicas deberán formalizar con Uniqual convenios para el desarrollo de la evaluación externa de su profesorado en cumplimiento de lo previsto en el artículo 113 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco y del artículo

koaren 72.2 artikuluak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren idazkeran) agintzen dutenez.

Bere estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, Uniqualen funtzioen artean dago Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legean aipatzen diren txostenak egitea, unibertsitate publikorako irakasleak eta ikerlariak kontratatzeko euren merezimenduak ebaluatuz eta, unibertsitate ez-publikoetan, irakasleen irakasle- eta ikertzaile-lana ebaluatzea.

2.– Sarrera.

Uniqualen Irakasleak Ebaluatzeko Programak, alde batetik, bere gain hartzen du, irakasle kontratatuak eta ikertzaileak hartzeko,, irakasle- eta ikerlari-lana ebaluatzea edo aurretiazko txostena egitea. Bestalde, unibertsitate ez-publikoei dagokienez, Uniqualen ebaluazioa irakaslea kontratatu aurretiazkoa izan daiteke, edo, bestela, lehendik kontratatuta dauden eta irakasle- edo ikertzaile-lanetan dabiltzan irakasleena.

Unibertsitateek eurek zehaztu behar dituzte irakasleak eta ikerlariak kontratatzeko prozesuan aplikatu beharreko baldintzak, irizpideak eta prozedurak. Uniqualek egindako ebaluazioa ez da sarrera-prozesuaren lehen fasea besterik, ondoren unibertsitateen berezko kontratazio-prozesua baitator. Unibertsitate ez-publikoetako irakasleei dagokienez, unibertsitatean hasi behar duten irakasleen hezkuntza- eta ikerketa-lana ez ezik, jada bertan irakasle- eta ikertzaile-lanetan ari diren irakasleena e5re ebaluatuko du Uniqualek. Agentziaren Etika Kodeko irizpide hauek hartu behar ditu aintzat ebaluazio-prozesuak:

– Independentzia. Aditu ospetsuz osatutako batzorde teknikoek egingo dute eskaeren balorazioa, eskatzailearen ekarpenen kalitatearen arabera aplikatuz irizpide orokorrak.

– Gardentasuna. Bermatu behar da eskatzaileek prozesua gardena dela sentitzea, baina konfidentzialtasuna arriskuan jarri gabe. Neurri hauek hartu behar dira horretarako:

* Eskaera-prozesuak egiteko, dokumentuak jasotzeko, merezimenduen ebaluazioa egiteko, txostenak bidaltzeko eta erreklamazioei erantzuteko beharrezkotzat jotzen den informazio guztia argitaratu behar da.

* Konfidentzialtzat sailkatutako dokumentu eta/edo txosten guztien konfidentzialtasuna gorde egin behar da, eta kontuz erabili ebaluazioa egiteko behar den gainerako informazioa.

– Eraginkortasuna. Prozesu bakoitzerako, ahalik eta ebaluazio-prozedura sinpleena bilatu behar da, ebaluazioaren emaitza ahalik eta lasterren emateko.

72.2 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de universidades, en la redacción dada por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril.

De acuerdo con lo previsto en sus estatutos, Uniqual tiene entre sus funciones la emisión de los informes contemplados en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, para la contratación de personal docente e investigador por la Universidad pública, evaluando sus méritos y la evaluación de la actividad docente e investigadora del profesorado en las Universidades no públicas.

2.– Introducción.

El Programa de Evaluación del Profesorado de Uniqual se refiere, por un lado, a la evaluación o informe previo de la actividad docente e investigadora para la contratación de profesorado y personal investigador contratado. Por otro lado, en el caso de Universidades no públicas la evaluación realizada por Uniqual puede efectuarse bien de forma previa a la contratación del profesorado, o bien con respecto a profesorado ya contratado que lleve tiempo realizando tareas docentes y de investigación.

Las propias Universidades definirán los términos, criterios y procedimientos que se aplicarán en el proceso de contratación del profesorado y del personal investigador. La evaluación realizada por Uniqual constituye únicamente la primera fase del proceso de acceso, que va seguida de otra en la que las Universidades desarrollan sus propios procesos de contratación. En el caso del profesorado de Universidades no públicas, Uniqual evaluará la actividad docente e investigadora tanto del profesorado que vaya a acceder a la Universidad como del profesorado que ya realiza estas labores de docencia e investigación en la misma. El proceso de evaluación a desarrollar deberá regirse asimismo por los siguientes principios recogidos en el Código ético de la Agencia:

– Independencia. La valoración de las solicitudes se realizará por Comités Técnicos, compuestos por expertos/as de reconocido prestigio que aplicarán los criterios generales de acuerdo a la calidad de las aportaciones del solicitante o de la solicitante.

– Transparencia. Se debe asegurar que los/las solicitantes perciban transparencia en el proceso sin por ello comprometer la confidencialidad del mismo. Las medidas adoptadas en este sentido son:

* Hacer pública cuanta información se considere necesaria para llevar a cabo los procesos de solicitud, recepción de documentos, evaluación de méritos, emisión de informes y atención a reclamaciones.

* Mantener la confidencialidad de todos los documentos y/o informaciones clasificados como confidenciales y tratar con reserva el resto de la información a la que se pueda o deba acceder en el ejercicio de la evaluación.

– Eficiencia. Para cada uno de los procesos, se buscará el procedimiento de evaluación más simple posible, para dar respuesta rápida a la evaluación.

– Zuzentasuna: eskaera guztiak berdin aztertuko direla bermatu behar da. Batzordeko kideek banaka ebaluatu behar dituzte esparru bereko eskaerak eta, ondoren, kide guztiek bilera egin behar dute eskaera bakoitzaren ebaluazioaren emaitza guztien artean bateratzeko eta adosteko.

3.– Ebaluazio-Organoak.

Bere ebaluazio-organoen bidez jasotako eskaerak ebaluatuko ditu Uniqualek. Organo horietako (ebaluazio-batzordeak) kideek erabateko inpartzialtasunez jardun behar dute, ager daitezkeen interes-gatazkak jakitera eman behar dituzte eta, hala badagokie, ez dute parterik hartu behar prozesuan (osoan edo zati batean).

Konfidentziala da ebaluazio-prozesuan eskuratzen den informazio guztia.

Ebaluazio-Batzordeak.

Ebaluazio-batzordeak dira ebaluazio-prozesuaren koordinazio-organoa, prozedura guztiaren planifikazio-, kontrol-, eta azterketa-lanak egin eta, iritzi teknikoak ikusita, banakako behin betiko txostenak egin behar dituena.

Zazpi kide izan behar ditu ebaluazio-batzorde bakoitzak, ebaluatu behar denaren maila berekoak edo goragokoak. Gutxienez aldeko hiru ebaluazio dituzten (hamabost urteko lan-esperientziari dagokiona) eta, gutxienez, bi ikerketa-jarduera garairen (seiurteko) aitortza duten doktoreen artetik (irakasle eta/edo ikerlari) aukeratu behar dira batzordeko kideak. Unibertsitate ez-publikoetako irakasleei dagokienez, antzeko merezimenduak (kanpotik egiaztatuak) eskatu behar dira. Uniqualeko zuzendariak izendatu behar ditu, batzorde bakoitzeko kideen artetik, haietako lehendakariak eta idazkariak, zeinek kargu horiei dagozkien lanak egin behar dituzten organo horietan.

Ebaluazio-batzordeko kideek independentziaz, inpartzialtasunez eta gardentasunez bete behar dituzte beren eginkizunak, eta ez dute izan behar horrekin batera inongo ordezkaritza-kargurik Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan. Batzordeko kideetatik hiruk, gutxienez, Euskal Herriko unibertsitateren bateko irakasleak izan behar dute. Era berean, azaroaren 13ko 192/2997 dekretuaren 5.2 artikuluak agintzen duenez, batzordeetako kideen erdiek, gutxienez, ebaluatzen den irakasleak lan egiten duen unibertsitate publiko edo pribatu berean ez dute lan egin behar, eta, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunari buruzkoa) 3. artikuluak agintzen duenez, ahaleginak egin behar dira ebaluazio-batzorde bakoitzean sexu bakoitzak % 40ko ordezkaritza, gutxienez, izan dezan.

Ebaluazio-prozesuaren zehaztasunen eta Uniqualeko administrazio-kontseiluak hitzarmenean onartutako Ezagutza Arloen Katalogoaren arabera, eta, betiere,

– Equidad: se debe asegurar la igualdad de trato de todas las solicitudes. Las solicitudes de un mismo campo serán evaluadas de forma individual por los miembros del Comité, que en una reunión posterior conjunta pondrán en común y consensuarán el resultado de la evaluación para cada solicitud.

3.– Órganos de Evaluación.

Uniqual evaluará las solicitudes recibidas a través de sus órganos de evaluación. Estos son los Comités de Evaluación, cuyos miembros deberán mantener una imparcialidad absoluta en su actuación, debiendo declarar los posibles conflictos de intereses que puedan presentarse y, en su caso, absteniéndose de participar en todo o en parte del proceso.

Toda la información a la que se tenga acceso en el proceso de evaluación es de carácter confidencial.

Comités de Evaluación.

Los Comités de Evaluación son el Órgano Coordinador del proceso evaluador, que realizarán las labores de planificación, control y análisis de todo el procedimiento y emitirán los informes individuales definitivos a la vista de los juicios técnicos vertidos.

Cada Comité de Evaluación estará formado por siete miembros de categoría igual o superior a aquella cuyo reconocimiento se pretenda y su selección se llevará a cabo entre el personal docente y/o investigador doctor que deberá poseer al menos tres evaluaciones favorables de su actividad docente (correspondiente a quince años de dedicación) y el reconocimiento de un mínimo de dos periodos de actividad investigadora (sexenios). En el caso de profesorado de Universidades no públicas se requerirán meritos equivalentes acreditados externamente. El Director o la Directora de Uniqual designará de entre los miembros de cada Comité de Evaluación a su Presidente o Presidenta a y a su Secretario o Secretaria, quienes desempañarán las funciones propias de esos cargos en los órganos colegiados.

Los miembros del Comité de Evaluación deberán reunir los requisitos de independencia, imparcialidad y transparencia en su actuación, debiendo evitarse el desarrollo simultáneo de esta función con cargos de representación en las Universidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Al menos tres de sus integrantes deberán ser profesores o profesoras de las Universidades del País Vasco. Asimismo, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 5.2 del Decreto 192/2007, de 13 de noviembre, al menos la mitad de sus componentes han de prestar servicios en universidades públicas o privadas distintas a la de la profesora o profesor evaluado y, a los efectos del artículo 3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se procurará que los dos sexos estén representados en al menos el 40% en cada Comité de Evaluación.

En función de las especificidades del proceso de evaluación a desarrollar y del Catálogo de Áreas de Conocimiento aprobado por Acuerdo del Consejo de

Agentziaren beraren estatutuetan ezarritakoarekin bat, zientziaren arlo nagusiei lotutako ebaluazio-batzordeak eratu behar dira, jakintza-arlo guztiak aintzat hartzen dituztenak:

1) Zientzia Esperimentalak.
2) Medikuntza eta Osasun Zientziak.
3) Irakaskuntza Teknikoak.
4) Gizarte eta Ekonomia Zientziak eta Zientzia Juridikoak.
5) Giza Zientziak.

Prozesu bakoitzaren egoera zehatzen arabera, ezagutza-arlo bakoitzeko ebaluazio-batzorde bat baino gehiago era daiteke.

Izendapena: aditu-batzordearen proposamenetan oinarrituta, batzordeko kideak Uniqualeko zuzendariak izendatu behar ditu, aurretiaz administrazio-kontseiluaren oniritzia jasota (Agentziaren estatutuetako 12.2 artikulua). Izendatutako hautagaiaren ordezkoa hautatzeko, hiru hautagai izendatu behar dira postu bakoitzeko. Hautagai guztiek hartu behar dute parte batzordeko kideak izendatu aurretiko trebakuntza-jardunaldietan. Bi urtez jardun behar dute karguan batzordeetako kideek, eta bigarren agintaldi baterako bakarrik hautatu ahal dira. Bigarren hori amaitutakoan, ezin dira berriro hautatu bi urte igaro arte kargua utzi zutenetik. Agintaldia amaitutakoan, beren eginkizunekin jarraitu behar dute, batzordeko kideek harik eta ordezkoak hautaut eta izendatu arte.

Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean eta Uniqualen web gunean argitaratu behar dira batzordeko kideen izenak.

4.– Prozesuaren Deskribapena.

Prozesua hasten da deialdia -Uniqualen administrazio-kontseiluak onartuta- Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean. Argitalpenarekin abiatuko den ebaluazio-prozesurako oinarriak ezarri behar dira deialdian, protokolo honen arabera. Urtero egin behar da ohiko deialdia, behar diren ohiz kanpoko deialdien kalterik gabe.

Unibertsitate ez-publikoetako irakasleekin egin beharreko ebaluazio-prozesua, berriz, hitzarmen bidez egin behar da, protokolo honen arabera. Dagokion unibertsitatearekin sinatuko du hitzarmena Uniqualek, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen arabera.

Eskaerak.

Interesatuaren eskaera, deialdiarekin batera argitaratuko den eredu arautuari egokitua, Uniqualeko zuzendariari bidali behar zaio, dagokion dokumentazioarekin batera. Historia akademikoaren kopia bat gehitu behar

Administración de Uniqual, y siempre de conformidad con lo establecido en los propios estatutos de la Agencia, se constituirán Comités de Evaluación vinculados a los grandes campos científicos, que abarquen todas las áreas de conocimiento:

1) Ciencias Experimentales.
2) Ciencias Médicas y de la Salud.
3) Enseñanzas Técnicas.
4) Ciencias Sociales, Jurídicas y Económicas.

5) Humanidades.

En función de circunstancias específicas de cada proceso se podrá crear más de un Comité de Evaluación por área de conocimiento.

Nombramiento: los miembros del Comité serán nombrados por el Director o la Directora de Uniqual a propuesta de la Comisión de Expertos, previa aprobación del Consejo de Administración (artículo 12.2.l] de los estatutos de la Agencia). Al efecto de posibilitar la suplencia del candidato nombrado se designarán tres posibles candidatos por cada plaza que se precise, todos los cuales participarán en unas jornadas de formación que se celebrarán previamente al nombramiento de los vocales de los Comités. El mandato de los miembros de los Comités tendrá una duración de dos años y sólo podrán ser reelegidos por un segundo mandato, finalizado el cual no podrán ser nuevamente elegidos hasta transcurridos dos años desde su cese. Finalizado su mandato los miembros del Comité continuarán en el ejercicio de sus funciones hasta que se produzca la designación y nombramiento de los nuevos miembros que les sustituyan.

La composición del Comité será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en la página web de Uniqual.

4.– Descripción del Proceso.

El proceso se inicia mediante la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la convocatoria, aprobada por Acuerdo del Consejo de Administración de Uniqual, en el que conforme a lo previsto en el presente Protocolo se fijarán las bases del proceso evaluador que se inicia con su publicación. Se realizará una convocatoria anual ordinaria, sin perjuicio de que se puedan establecer las convocatorias extraordinarias que se considere oportunas.

El proceso de evaluación a desarrollar con el profesorado de las Universidades no públicas será objeto de convenio que, en el marco de lo previsto en el presente Protocolo, suscriba Uniqual con la Universidad correspondiente en cumplimiento de lo previsto en el artículo 113 de la Ley 3/2004, 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

Recepción de Solicitudes.

La solicitud del/de la interesado/a, ajustada al modelo normalizado que figurará publicado junto con a la convocatoria, estará dirigida a la Directora de Uniqual e irá acompañada de la correspondiente documenta-

zaio eskaerari, deialdiarekin batera argitaratu behar den curriculum vitae eredu arautuaren arabera idatzita. Deialdi bakoitzak ezarri behar ditu horretan parte hartzeko bete beharreko formak, epeak eta dokumentazioa.

Zehaztu egin behar da, eskaeran, ebaluazioa edo txostena kontratuzko zein modalitaterako eskatzen den. Bestalde, zer eremutan eta arlotan ebaluatua izan nahi duen zehaztu behar du eskatzaileak. Kapitulu hau osatzeko, eskatzaileak, Uniqualen administrazio-kontseiluaren adostasunarekin onartu beharreko kontratu-mota bakoitzerako, Agentziako batzorde eta ebaluazio-eremuei esleitutako Ezagutza Arloen Katalogoa kontsultatu behar du.

Deialdian zehaztutako lekuetan aurkeztu behar da eskaera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak ezarritakoari kalterik egin gabe. Uniqualen jasotzen den eskaera bakoitza identifikazio-zenbaki batekin erregistratu behar da, identifikazio-zenbakia jarriz eskatzaile eta postu-mota bakoitzeko, eta espedientea ireki behar da sarrera-data adierazteko. Interesdunak espediente bat baino gehiago irekitzen badu (eskatzaile eta postu-mota bera), erregistro publiko batean paperean aurkeztutako lehen eskaerari dagokiona baizik ez da hartu behar kontuan.

Eskaera bakoitzean, datu hauek begiratu behar dituzte Uniqualeko langileek:

1.– Eskatutako kontratu-modalitateetarako legeak aurrez ezarritako baldintzak betetzen diren. Indarrean dagoen legediaren arabera, hauek dira baldintzak:

a) Irakasle osoaren modalitatea kontratatzeko ebaluazioan, doktoretza-titulua eskatzen duen unibertsitateko edozein irakasle-taldetako kide izatea, edo irakasle agregatu izatea eta, gutxienez, unibertsitateko irakasle edo ikertzaile gisa hiru urteko jarduna egiaztatzea.

b) Irakasle agregatuaren modalitatea kontratatzeko ebaluazioan, doktore-titulua edukitzea eta, gutxienez, irakasle edo ikerlari gisa hiru urtez jardun izana, doktore egin eta gero, ahal dela.

c) Irakasle atxikiaren modalitatea kontratatzeko ebaluazioan, doktore-titulua edukitzea eta egiaztatzea bi urtez, gutxienez, ez duela Euskal Herriko Unibertsitatean kontratuzko edo estatutuen araberako harremanik izan edo bekadun gisa jardun, eta, denbora-tarte horretan, unibertsitate horrekin loturarik ez duten zentroetan irakasle- edo ikerlari-lanak egin dituela edo doktore-titulua beste unibertsitateren batean eskuratu duela.

d) Unibertsitate Pribatuko Irakasle modalitatea kontratatzeko ebaluazioan, doktore-titulua edukitzea.

ción. En particular, a la solicitud se adjuntará copia del historial académico, el cual será redactado conforme al modelo de currículum vitae normalizado que también será publicado junto con la convocatoria. Cada convocatoria establecerá la forma, plazos y documentación necesaria para participar en la misma.

En la solicitud se deberá indicar para qué modalidad/es contractual/es se solicita la evaluación o informe. Además, el interesado o la interesada deberá indicar en la solicitud el área y el campo por el que desea ser evaluado. Para completar este apartado el solicitante o la solicitante deberá consultar el Catálogo de Áreas de Conocimiento asignadas a los distintos Comités y campos de evaluación de la Agencia, para cada figura contractual que ha de ser aprobado por acuerdo del Consejo de Administración de Uniqual.

La solicitud se presentará en los lugares previstos en la convocatoria, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Recibida la solicitud en Uniqual, será registrada con un número identificativo por solicitante y figura solicitada y se abrirá un expediente indicando la fecha de entrada. En el caso de que el interesado o la interesada genere varios expedientes (mismo solicitante y figura), sólo se tendrá en consideración el correspondiente a la primera solicitud en papel presentada en un registro público.

Para cada solicitud, se realizarán por parte del personal de Uniqual las siguientes comprobaciones:

1.– Verificación relativa al cumplimiento de los requisitos previos legalmente establecidos para las figuras contractuales solicitadas, que de acuerdo con la legislación vigente, son los siguientes:

a) En la evaluación para la contratación de la figura de Profesor/a Pleno, pertenecer a cualquiera de los cuerpos docentes universitarios para cuyo acceso se requiere el título de doctor, o tener la condición de profesora o profesor agregado y acreditar, al menos, tres años de actividad docente universitaria e investigadora.

b) En la evaluación para la contratación de la figura de Profesor/a Agregado/a, estar en posesión del título de Doctor/a y haber desarrollado, al menos, tres años de actividad docente e investigadora, prioritariamente post-doctoral.

c) En la evaluación para la contratación de la figura de Profesor/a Adjunto/a, estar en posesión del título de Doctor/a y acreditar que, al menos, durante dos años no ha tenido relación contractual, estatutaria o como becario/a en la Universidad del País Vasco y que durante ese tiempo ha realizado tareas docentes y/o investigadoras en centros no vinculados a la misma o que el título de doctor ha sido expedido en otra universidad.

d) En la evaluación para la contratación de la figura de Profesor/a de Universidad Privada, estar en posesión del título de Doctor/a.

e) Irakasle lankide modalitatea kontratatzeko eskaera-txostenean, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari-titulua, edo unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua edukitzea.

f) Irakasle elkartua modalitatea kontratatzeko eskaera-txostenean, jarduera profesionala unibertsitatetik kanpokoa izatea.

g) Kontratupeko ikerlariak, ikerketako langile doktoreak eta/edo irakasle ikertzaileak kontratatzeko ebaluazioan, aipatutako kategoria bakoitzari dagozkionak.

Baldintza horiek beti bete behar dira ebaluazioa eskatzeko ezarritako epemuga baino lehen.

2.– Dokumentazioak deialdian ezarritako baldintza formalak betetzen dituela egiaztatzea.

Uniqualeko Zuzendariaren erabakiaren bitartez jakinarazi behar zaie interesatuei epez kanpo jasotako eskaeren artxibatzea, baita ebaluazioa edo txostena eskatu den kontratuzko modalitaterako hautagai izateko legez ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenena ere. Epeen barruan aurkeztutako eskariek deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte edo prozeduraren izapideak egiteko beharrezko dokumentazioa aurkeztu gabe geratu bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluak agintzen duenez, eskatu behar zaio interesdunari falta diren dokumentuak ekartzeko, hamar laneguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita. Aipatutako epean falta diren dokumentuak aurkeztu ezean interesdunak, eskatzaileak atzera egin duela joko da. Uniqualeko zuzendariak hartu behar du erabakia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluak agintzen duenez.

Ebaluazio-eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkez daitezke.

Ebaluazioa.

Prozesua koordinatzen duen organoa izaki, ebaluazio-batzordeak egin behar du, deialdi bakoitzaren hasieran, ebaluazio-prozesuaren planifikazio orokorra. Batzorde bakoitzak bere ebaluazio-zereginak egiteko dituen epeak zehaztu behar dira planifikazioan interesdunek Uniqualen erabakia deialdian zehaztutako gehienezko epeen barruan jasoko dutela ziurtatzeko. Batzordeak adostutako planifikazioarekin bat, eskaerak Uniqualek jaso ahala ebaluatu behar dira, denbora-ordena jarraituz.

e) En la solicitud de informe para la contratación de la figura de Profesor/a colaborador, estar en posesión del título de licenciado/a, arquitecto/a, ingeniero/a o diplomado/a universitario/a, arquitecto/a técnico/a o ingeniero/a técnico/a.

f) En la solicitud de informe para la contratación de la figura de Profesor/a asociado, ejercitar su actividad profesional fuera de la universidad.

g) En la evaluación para la contratación de personal investigador contratado, personal doctor investigador y/o profesor de investigación, las que correspondan en función de cada una de dichas categorías.

La concurrencia de dichos requisitos deberá estar referida siempre a una fecha previa a la expiración del plazo fijado para solicitar la evaluación.

2.– Verificación de que la documentación cumple los requisitos formales establecidos en la convocatoria.

Mediante Resolución de la Directora de Uniqual se notificará a los interesados o interesadas el archivo de las solicitudes recibidas fuera de plazo, así como de aquéllas que no cumplan los requisitos legalmente establecidos para poder optar a la figura contractual cuya evaluación o informe se solicite. Cuando las instancias presentadas en plazo no reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria o se hubiera omitido la presentación de los documentos necesarios para la tramitación del procedimiento, se procederá a requerir al interesado o interesada, para que en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente a la recepción del requerimiento, subsane la falta aportando los documentos preceptivos, de conformidad con lo previsto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. En el caso de que el solicitante o la solicitante no subsanara dicha falta en el plazo señalado, se le tendrá por desistido de su petición, lo que será declarado por Resolución de la Directora de Uniqual, dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes de evaluación se podrán presentar en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Evaluación.

El Comité de Evaluación, como Órgano Coordinador del proceso, realizará al comienzo de cada convocatoria una planificación general del proceso de evaluación. En ella, se indicarán los plazos de que disponen los Comités para realizar sus tareas de evaluación a fin de asegurar que la resolución de Uniqual pueda llegar a los interesados o interesadas en el plazo máximo indicado en la convocatoria. De conformidad con la planificación acordada por el Comité, las solicitudes son evaluadas siguiendo el orden temporal de su recepción en Uniqual.

Oro har, aurkeztutako eskaerak eskatzaileak zehaztutako ezagutza-arloari eta eremuari dagokion ebaluazio-batzordeari esleitu behar zaizkio. Hala ere, eskatzaileak zehaztutako eremua ez den beste bati esleitu ahal zaio eskaera, eta, ondorioz, aurkeztutako merezimenduak beste zientzia-eremu bati hobeto egokitzen zaizkiola iruditu gero, beste batzorde bati.

Batzordeen ebaluazioa: Uniqualeko administrazio-zerbitzuek, ebaluatu beharreko eskaerak, behar bezala ordenatuta eta sailkatuta, ebaluatzaile bakoitzaren esku jarri behar dituzte, baita eskaeren laburpen-zerrenda ere. Batzorde bakoitzeko kideek bakarka eta independenteki ebaluatu behar dituzte espedienteak, aurrez ezarritako egutegian zehaztutako epeen barruan.

Oro har, batzordeko kideek ebaluatu behar dute eskaera bakoitza. Horretarako, bakarkako azterketa eta ebaluazioa egin ostean, batzorde bakoitzeko buruak, espedienteen ebaluazio bateratua egiteko, kide guztien arteko batzarra egiteko eguna eta ordua ezarri behar ditu. Batzar horrek txosten bakarra egin behar du ebaluazio-eskaera bakoitzeko, eta ebaluazio-batzordeko buruak izenpetu. Idazkariak jaso behar ditu, bilerako aktan, ebaluazioaren jazoerak eta batzordeak egindako txosten guztiak. Batzordeen txostenek iritzi teknikoa eman behar dute, ebaluazio-irizpide bakoitzean jasotako puntuazioarekin eta iritziaren laburpen arrazoituarekin. Puntuazioa aldekoa ez bada, arrazoitu egin behar da zergatik.

Ebaluazio-eskaerei dagokienez, laburpen horrek eskatzaile bakoitzaren curriculumaren balorazio orokor motibatu pertsonalizatua izan behar du, iritzi teknikoa adieraziz eta diagnostikorako eskema bat aplikatuz. Aholkuak ere eman behar ditu, eskatzailearen indarguneak azpimarratuz eta bere etorkizuneko ibilbide profesionala hobetzeko ekintzak proposatuz. Txosten-eskaerei dagokienez, kasu bakoitzean kontratazioa onartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu behar du laburpenak, ez besterik.

Salbuespen gisara, ebaluazio-batzordeak Uniquali espezialisten aholkularitza eskatu ahal dio, egoki deritzonean. Era berean, batzordearen bileraren ostean interesatuari dokumentazio gehiago eskatu ahal zaio, edo beste batzorde bati esleitzeko.

Dagokion batzordeak ebaluazioa edo txostena egindakoan, Uniqualeko zuzendariari bidali behar zaio. Ebaluazioak edo txostenak, iritzi teknikoari dagokionez, lotesleak dira.

Con carácter general, se procederá a la adscripción de las solicitudes presentadas al correspondiente Comité de Evaluación, en función del área de conocimiento y del campo señalado por el solicitante o la solicitante. No obstante, se podrá adscribir la solicitud a un campo diferente al indicado por el solicitante o la solicitante y por tanto a un Comité diferente si se considera que los méritos alegados se adecuan mejor a dicho campo científico.

Evaluación por los Comités: los servicios administrativos de Uniqual pondrán a disposición de cada evaluador o evaluadora, oportunamente ordenadas y clasificadas, las solicitudes objeto de evaluación, así como un listado resumen de las mismas. Los miembros de cada Comité realizarán la evaluación de los expedientes de forma individual e independiente, dentro de las fechas señaladas en el calendario previamente establecido.

Con carácter general, cada solicitud será evaluada por los miembros del Comité. A tal efecto, una vez llevado a cabo el análisis y evaluación individual, el Presidente o la Presidenta de cada Comité procederá a fijar día y hora para celebrar la sesión de todos los miembros, para la realización de la evaluación colegiada de los expedientes. Resultado de esta reunión será la emisión de un informe único para cada solicitud objeto de evaluación, que será firmado por el Presidente o la Presidenta del Comité de Evaluación. El Secretario o la Secretaria levantará Acta de esta reunión que contendrá las incidencias de la evaluación, junto con todos los informes emitidos por el Comité. Los informes de los Comités contendrán un juicio técnico, con las puntuaciones obtenidas en cada uno de los criterios de evaluación, debiendo ser justificados en el supuesto de ser desfavorables y un resumen motivado del mismo.

En el caso de las solicitudes de evaluación, dicho resumen contendrá una valoración global motivada personalizada del currículo de cada solicitante, expresando el juicio técnico y aplicando un esquema de diagnóstico más recomendaciones, destacando sus puntos fuertes y orientándole en acciones de mejora para su futura trayectoria profesional. En el caso de las solicitudes de informe, dicho resumen se circunscribirá al cumplimiento de los requisitos para la admisión de la contratación de que se trate en cada caso.

Excepcionalmente, el Comité de Evaluación, podrá requerir a Uniqual el asesoramiento específico de especialistas cuando resulte aconsejable. Igualmente, la reunión del Comité también podrá dar lugar a una solicitud de documentación complementaria al interesado o a una readscripción a otro Comité.

Una vez realizada la evaluación o el informe por el Comité correspondiente, que tendrán carácter vinculante en cuanto al juicio técnico que ha de contenerse en los mismos, serán remitidos a la Directora de Uniqual.

Ebazpena.

Eskaera bakoitzeko ebaluazio-ebazpen bat plazaratu behar da, eta ebaluazioaren aldeko edo kontrako iritzia edo txostenaren aldeko edo kontrako zentzua adierazi behar ditu, eta zer kontratu-modalitatetarako egiten den. Halaber, dagokion batzordeak egindako ebaluazioaren edo txostenaren laburpena erantsi behar zaio ebazpenari. Uniqualeko zuzendariak banan-banan jakinarazi behar dio interesdun bakoitzari deialdi bakoitzean eskatutako ebaluazio-ebazpenaren edukia, akta sinatu eta hamar eguneko epean.

Ebaluazioa jakinarazteko epeak ez du izan behar sei hilabetetik gorakoa, deialdian aurreikusitako eskaerak egiteko epea amaitzen denetik hasita. Interesatuari dokumentu osagarria edo kanpoko adituei aholkularitza eskatu behar bazaie edo eskaera beste Ebaluazio Batzorde bati esleitu behar bazaio, ebazpena erabakitzeko epea bertan behera geratzen da, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5. artikuluak ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hartutako erabakiak ondorioak izango ditu Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan, baita beste autonomia-erkidego batzuetako unibertsitateetan ere, Uniqualek erkidego horietako ebaluazio-agentzia edo -organoekin dagokion homologaziorako eta elkar onartzeko hitzarmenik izenpetu badute.

Kontratu-modalitate jakin baterako kontrako ebaluazioa edo txostena jaso duen eskatzaileak ezin du kontratuzko modalitate bererako eskaera berririk egin, ebazpena jakinarazi eta sei hilabete pasa arte.

Eskatutako kontratuzko modalitaterako aldeko ebaluazioen eta txostenen eragina ez da iraungitzen.

Baliozkotzeak.

Irakasle Osoen eta Agregatuen kontratuzko modalitateetarako aldeko ebaluazioak automatikoki gaituko du eskatzailea Irakasle Atxikia eta Unibertsitate Pribatuko Irakasle modalitateetan kontratatua izateko.

Irakasle ikertzaile modalitaterako aldeko ebaluazioak automatikoki gaituko du eskatzailea Irakasle Oso gisara kontratatua izateko. Ikerketarako langile doktore modalitaterako aldeko ebaluazioak automatikoki gaituko du eskatzailea Irakasle Agregatu gisa kontratatua izateko.

Unibertsitateko Katedratiko Taldeko edo Unibertsitateko Irakasle Titular Taldeko kide izateak edo talde horietako baterako gaitua izateko egoera administratibo eta akademikoan egoteak automatikoki gaituko du es-

Resolución.

La Resolución de Evaluación será individualizada para cada solicitud, expresará el carácter positivo o negativo de la evaluación o el sentido favorable o desfavorable del informe, según corresponda, y la figura contractual para la que se realiza. Asimismo, la resolución se acompañará del resumen de la evaluación o informe realizado por el Comité correspondiente. El Director o la Directora de Uniqual notificará individualmente a cada interesado o interesada, en un plazo de diez días desde que el acto haya sido dictado, el contenido de la Resolución por la que se resuelva la evaluación solicitada al amparo de cada convocatoria.

El plazo para la notificación de la evaluación no podrá ser superior a seis meses a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes previsto en la convocatoria, sin perjuicio de que, en los supuestos en los que haya sido solicitada documentación complementaria al interesado, la consulta a expertos externos o cuando se haya procedido a readscribir la solicitud a un Comité de Evaluación distinto, el plazo para resolver se suspenda, siempre que se cumplan las condiciones establecidas para cada caso en el artículo 42.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La evaluación emitida tendrá efectos en las Universidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como en aquellas Universidades de otras Comunidades Autónomas con cuyas Agencias u órganos de evaluación Uniqual establezca el correspondiente convenio de homologación y reconocimiento mutuo.

El o la solicitante que haya sido objeto de una evaluación negativa o informe desfavorable para una figura contractual determinada, no podrá efectuar una nueva solicitud para esa misma figura hasta que hubieran transcurrido seis meses desde la fecha en que se le notificó la Resolución.

Los efectos de la evaluación positiva o el informe favorable para la figura contractual solicitada no están sujetos a caducidad.

Convalidaciones.

La evaluación positiva para las figuras contractuales de Profesor Pleno y Agregado cualificará automáticamente para poder ser contratado en las figuras de Profesor Adjunto y Profesor de Universidad Privada.

La evaluación positiva para la figura de Profesor de Investigación cualificará automáticamente para poder ser contratado como Profesor Pleno. La evaluación positiva para la figura de Personal Doctor Investigador cualificará automáticamente para poder ser contratado como Profesor Agregado.

La pertenencia al Cuerpo de Catedráticos de Universidad o al Cuerpo de Profesores Titulares de Universidad o la situación administrativa y académica de encontrarse habilitado para alguno de dichos Cuerpos,

katzailea deialdi honetan arautako edozein modalitatetan kontratatua izateko.

Unibertsitateko irakasle taldeetako kide diren irakasleek edo Unibertsitateko Lege Organikoaren arabera talde horietan gaituak daudenek eta ebaluazioa edo txostena eskatzen duten modalitateetan kontratatuak izateko aukera izan nahi dutenek horretarako ebaluazioa eskatu behar dute, araututako eskaera-eredua aurkeztuz, baita eredu arautuari egokitutako curriculum vitae-a ere. Era berean, unibertsitateko irakasle-funtzionario maila duela edo gaitua dagoela egiaztatzen duen edozein dokumentu ekarri behar du, Unibertsitateetako Lege Organikoak agintzen duenez, baita doktore-titulua duela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Dokumentazioa originalekin erkatu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.5. artikuluan aipatzen diren edozein erregistrotan.

Errekurtsoa.

Uniqualeko ebazpenek bide administratiboa agortzen dute, eta, beraz, berraztertzeko errekurtsoa zuzendariari berari aurkeztu behar zaio, edo administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari. Berraztertzeko errekurtsoa aurkezten denean, lehen ebaluazioa egin zuen ebaluazio-batzordeak espediente osoa berraztertu behar du. Batzordeak errekurtsoa aurkeztu duenaren alegazioak, lehen ebaluazioko txostena eta horien bien dokumentazioa aztertu behar ditu, eta lehen biei buruzko txostena egin. Uniqualeko zuzendariak, batzordearen txostena ikusirik, berraztertzeko errekurtsoari erantzun egin behar dio, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio, ezartzen denetik hilabeteko epean.

5.– Ebaluazio-Irizpideak.

Ebaluazio-irizpideak eta horiei egin lekizkiekeen aldaketak, Uniqualeko administrazio-kontseiluak onartu eta gero eta Ikerketaren Euskal Kontseiluaren aurretiazko txostenarekin, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartu behar ditu.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, ebaluazio-irizpideei ahalik eta publizitate gehien egin behar zaie, baita bere kuantifikazio orokorrei, ebaluazio-irizpide horiek aplikatzeko printzipioei eta norabideei eta aldeko ebaluazioa eta txostena jasotzeko bete behar diren baldintzei ere. Zehazki, Hezkuntza Sailaren (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Uniqualen (www.Uniqual.org) web guneen bidez argitaratu behar dira.

cualificará automáticamente para poder ser contratado en cualquiera de las figuras reguladas en esta convocatoria.

Los profesores pertenecientes a Cuerpos docentes universitarios o que se encuentren habilitados para dichos Cuerpos de acuerdo con la Ley Orgánica de Universidades, que deseen poder ser contratados en las figuras requeridas de evaluación o informe previo, deberán solicitar evaluación para ello, presentando el modelo de solicitud normalizado, así como currículum vitae ajustado también al modelo normalizado. Igualmente, deberán aportar, cualquier documento que acredite su condición de funcionario docente universitario o de encontrarse habilitado, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica de Universidades, junto con la documentación que acredite que se encuentra en posesión del Título de Doctor/a. La documentación deberá ser cotejada con los originales por cualquiera de los registros a que se refiere el artículo 38.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Recurso.

Las Resoluciones de Uniqual agotan la vía administrativa, por lo que podrán ser recurridas en reposición ante la propia Directora, o ante la Jurisdicción contenciosa administrativa. Cuando se interponga recurso de reposición, el expediente completo pasará a ser revisado por el Comité de Evaluación que realizó la primera evaluación, que analizará las alegaciones del o de la recurrente, el informe de la primera evaluación y toda la documentación que sustente ambas y emitirá informe respecto a las primeras. La Directora de Uniqual, visto el informe del Comité, resolverá el recurso de reposición y dicha resolución será notificada al interesado o a la interesada en el plazo de un mes desde su interposición.

5.– Criterios de Evaluación.

Los criterios de evaluación y sus posibles modificaciones, una vez sean aprobados por el Consejo de Administración de Uniqual, previo informe del Consejo Vasco de Investigación, son objeto de aprobación por el Gobierno Vasco mediante Decreto.

Sin perjuicio de lo anterior, se dará la mayor publicidad posible a los criterios de evaluación, así como a su cuantificación global, los principios y orientaciones para la aplicación de dichos criterios de evaluación y las condiciones que deben cumplirse para obtener una evaluación positiva o informe favorable. En concreto, se mantendrán públicos a través de la página web del Departamento de Educación (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) y en la de Uniqual (www.uniqual.org).

Ebaluazio-irizpide horiekin batera, interesdunaren historia akademikoko merezimendu bakoitza egiaztatzeko zer dokumentazio aurkeztu ere zehaztu behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 1a.

Uniqualeko zuzendaria,
ANA FERNANDEZ SAINZ.

Junto a dichos criterios de evaluación se indicará la documentación que debe presentarse para acreditar cada uno de los de los méritos que componen el historial académico del interesado o de la interesada.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de septiembre de 2008.

La Directora de Uniqual,
ANA FERNÁNDEZ SAINZ.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

**5179**

2163/2008 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hutsik geratu diren destinoak txanda ireki bidez esleitzeko agindua ematen duena teknikari laguntzaile profesionalen lanbide taldeko ofizialen kategorian (gidarien lanpostu funtzionalak). Aipatutako kategoriak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak ditu destino.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Oinarri orokor horiek 2006ko urriaren 24ko EHAAn -203. zenbakikoan- argitaratu ziren.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 6ko 1135/2006 Ebazpenaren bidez, teknikari laguntzaile profesionalen lanbide taldeko ofizialen kategorian (gidarien lanpostu funtzionalak) lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetarako deialdia egin zen. Horien destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak ziren eta 2006ko azaroaren 2ko EHAAn, 209. zenbakikoan argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 23ko 384/2008 Ebazpenaren bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oposizioaldia txanda ireki bidez gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda amaierako puntuazio ordenaren arabera argitaratzeko agindu zen. Zerrenda hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak destino dituzten teknikari laguntzaile

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**5179**

RESOLUCIÓN 2163/2008, de 18 de julio, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la adjudicación de los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de de Oficial (puestos funcionales de Conductor) del Grupo Profesional de Técnicos Auxiliares Profesionales con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 1135/2006, de 6 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de de Oficial (puestos funcionales de Conductor) del Grupo Profesional de Técnicos Auxiliares Profesionales con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud publicándose en el BOPV n.º 209, de 2 de noviembre de 2006.

Mediante Resolución 384/2008, de 23 de abril, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordenó la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación definitiva de aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de de Oficial (puestos